

Euskal Herriko Ahotsak  
ahotsak.com

*Teodosia Iriondo Garate*

*Elgoibar, Gipuzkoa  
(1907-2010)*

Aurkibidea



## Biografia



San Frantzisko kalean jaio zen. 12 urte besterik ez zituela, San Frantzisko kalean bertan zegoen abarketa-denda batean hasi zen lanean. Teodosia 18 urte bete arte egon zen han lanean, baina kiebra egin zuen, eta estazioaren parean zegoen beste abarketa-denda batera joan zen lanera. 20 urterekin Teodosia Kubara joan zen eta 8 hilabete eman zituen bertan. "Industria jartzera jun ginan, hango jendiari erakusten egon ginan. Ez dakit zergaitikan baina han neska ederragoa nintzan, askoz ere, hemen baino. Kubatik etortzerakoan alpargaterixiak kiebra ein zaban ta zerbitzera jun nintzen Madrilera, nere lehengusina Muguruza arkitektu elgoibartarraren etxean zegoen orduan. Gainera, Elgoibarko neskak zeuden Madrilen orduan, eta haiekin ibiltzen nintzan ni". 24 urterekin ezkondu zen Madrilen ezagutu zuen andaluziar batekin.

## Zintak

### EGB-011

- **Proiektua:** Elgoibartarren esanetan
- **Elkarrizketatzailea(k):** Leon, Jabi - Tarragual Ulazia, Oihana
- **Data:** 2002-01-16
- **Iraupena:** 105 min
- **Euskarria:** Mini Disc
- **Kodifikatzailea:** Otegi, Aitziber
- **Transkribatzailea(k):** Irisarri, Estitxu

## Pasarteak

### 1. Elgoibarren jaioa 1907an

- **Erref:** EGB-011/001
- **Iraupena:** 0:02:55. **Hasi:** 00:00:00. **Bukatu:** 00:02:55
- **Multimedia:** audioa online entzungai

#### Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa

#### Laburpena:

<p>Elgoibarren, San Francisco kalean jaio zen 1907an. Aita baserrikoa zuen eta ama, berriz, kaletarra. Gaztetan, Kubara joan zen hangoei abarketagintza erakustera.</p>

### Transkripzioa

- Eta noiz jaixo ziñan?
- Ni, "día siete. Del siete de abril". Bueno, de... ez dakit, "mil novecientos..."
- "Siete".
- "Siete", bai, oin ez dakit zenbat urte dan. Bueno, badakit zenbat daukadan.
- Bai, larogeta hamalau urte.
- "Noventa y cuatro" daukat.
- Oso ondo. Eta nun jaixo ziñan?
- Hemetxe, Elgoibarren.
- Baiña nun, baserrixan? Baserrin baten?
- Ez, kalia. Aitta zan basarrikua ta ama kalekua.
- San Frantzisko kalia jaixo ziñan?
- E... zerian, San Frantziskon, San Frantzisko kalia.
- Han jaixo ziñan?
- Beti han, bizi ere hantxe eon, [ein naban], oin ez, oin e... bueno, oin ere han inguruan, residentzian nao-ta.
- Orduan jaixo ziñan San Frantzisko kalia ta bizi guztia hor bizi izan zera?
- Bai, ez. Kriada ere ibili nitzan.
- A, bueno. Orduan, jaixo ta kriada jun arte etxe hortan egon ziñan ta...
- Elgoibarren. Kuban ere egon naiz ni.
- Bueno, bueno, bueno! Aber, ointxe horrena hitz egingo degu, orduan.
- Gauza asko eukiko dittuzu kontatzeko ordun?
- Eta industria jartzera, e! Hara.
- A bai?
- "De turismo" ez. Beti lanian. Ni jun nitzan, bi neska juteko giñan, baiña beste haura pixkat makal samarra zala ta haura urruti zauala gaixotzen bazan ere. Ni ez, ni beti izan naiz fuertia. Vamos, gaixo... han ere buruko min bat ere ez naban euki. Eta barkuan ta danak. Orduan, hau e... "El Cantábrico"- edo "ola" asko dao hor itsasuan. Ta hori pasau arte neu ere mareau ein nitzan, e! Gehixenak mareatzen dia, baiña ostian ez, gero ederki. Ta Kuban izan giñan alpargaterixia ipintzia, e... jartzera. Industria. Ni... ni erakustera.
- Taller bat irekitzera?
- Erakustera hango...
- Hango jendiari?
- Bai eta...
- Zertan erakusten zenion?
- E?
- Zertan?
- Han?
- Erakutsi zer?
- Ondo egon nitzan, e... esaten zien "Teo —Teodosia naiz ni—, Teo, usted ha caído aquí con buenos pies [...]" Han neskia ederragua nitzan askoz ere hamen baiño! Bai, ez dakit zegatikan e... hango euzkixak eta gauzak, e...

## 2. 12 urterekin eskola utzi eta aberketak josten

- **Erref:** EGB-011/002
- **Iraupena:** 0:01:14. **Hasi:** 00:02:55. **Bukatu:** 00:04:09
- **Multimedia:** audioa online entzungai

**Gaia(k):**

- Baserría » Baserriko lanak » Baserriari lotutako lanbideak
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa

**Laburpena:**

<p>Eskola 14 urtera arte izaten bazen ere, aitzak neskek ez zutela eskola beharrik eta lanera bidali zuen 12rekin alpagata lantegira. Zazpi anai-arreba ziren familian.</p>

**Transkripzioa**

- Teodosia, ta hara jun aurretik, zerbitzera zenbat urtekin jun ziñan?
- Kanpua e... zelan izan zan? Egon. Gero, handikan etortzerakuan.
- A, Kubatik etorritta jun ziñan zerbitzera?
- Bai, bai.
- A! Orduan, lehenengo aldiz...Ta zenbat...?
- Lehenengo hamentxe fabrika alpagaterixan lanian hamabi urtekin, e! Hamalau izaten zan eskolia, baiña ni hamabira arte aillegau nitzan. Gure aitta zanak pentsatzen zaban emakumiak ez zebela bihar, jakin ezkerio etxeko gauzia... matxista, orduan. Eta [basarrikua]. Gero aizta bat neukan; haura zan pixkat delikadia, baiña lana ein bihar zan, ez zan asko irabazten ere ta... Gero beste bi mutil: zaharraua, ni baiño zaharraua, ta gero txikixena.
- Zu ziñan bigarrena, orduan?
- Baiña zazpi euki zaban. Badakizu orduan zenbat ume eukitzen zebeñ?

**3. Arrieta abarketa lantegian lanean**

- **Erref:** EGB-011/004
- **Iraupena:** 0:04:10. **Hasi:** 00:05:05. **Bukatu:** 00:09:15
- **Multimedia:** audioa online entzungai

**Gaia(k):**

- Baserría » Baserriko lanak » Baserriari lotutako lanbideak

**Laburpena:**

San Francisco kalean, Arrieta abarketa-lantegia zegoen, azpeitiar batena, eta han aritu zen lanean. Abarketagilearen inguruko kontuak eta laneoak aipatzen ditu. 12rekin hasi eta 20 urtera bitartean aritu zen bertan lanean.

**Transkripzioa**

- Alpagaterixia nun zauan?
- Hamen, San Frantzisko kalia, Arrieta esaten ziuena. Azkoittiarra zan bera. Ta San Pedron lana eitten zaban, biharra, gure aittak ere bai orduan, gure aitta zanak. Eta... Baiña azkoittiarak alpagateruak zian ta haura itxuria etortzen zitzakon eta gero ba harek e... harek ipini zaban. Oso gizon ona zan, e! Gero dendia zeuken ta dirua ez zebeñ ematen, txartela. Eta gero eurok denda haundixa zauken ta gauza asko zauken. Eta neskak, haren alabak, harek, e... dendia ondo eruan zebeñ. Dana zauan karuaua, zegatikan, badakizu, dirua ez zebeñ ematen eta han bat bihar zan. Baiña aitta zan pixkat... lana euki bihar, nahiz galdu, lana euki bihar! Ni atzaparreko miñakin nenguan, han, badakizu, "deprisa" eta haura, jostorratz haundi harek bero-bero-bero eitten zian eta hari ikutzen bazioun erre eitten zan. Ta batzuek e... sosiuzak, ni bizkorra nitzan lanian, e! Han ere. Eta harek ikutu zian ta ni, gaiñera, ez naiz izan [txartzekua], e! Beti

herida guztiak saniatzen zian neriak. Baiña orduan harek bero-berua zauan ta erre-edo ein zian ta pixkat baijakin egon... baja orduan ez zauan... e... jun ez lanera. Ta ikusi zianian, juteko, juteko han lanera zeozer egongo zala neretzako, haura ez bada, lehengua ez bada zeozer. Ta [ez nahi ikusi] kalian-ta bere obreruak-eta. Gizon ona zan, e! Baiña negoziarako harek berak ez zaban balio. Alabak-eta bai dendan... Dendiak asko eman ziuen hareri, baiña taillarrak ez. Gero kiebra-edo ein zaban. Valentziano batzuekin zor edo zeoze. Zeoze [trensia]-edo. Eta lan gitxi zauanian, ekartzen zaban baterixa txarrak. Guri gustatzen zitzakun Azkoittikuak, Azkoittixan, hango [trensia] ta, ba, harixa-ta, doble lan, askoz ere lehenao eta aberixaritan-eta ere ez. Eta beste horrek, Valentzia aldetik etorri [zianian], hamen sartzen genduan, e... orratz, esto... zera, jost... orratzak haundixak ta gero [ura] e... hola ematen zitzakon zerai, orratza hartu ta berriz atara ein bihar ta harek, e... materixal txarra ekartzen zabanian, haura, haura hamen satu ta hamen urten eitten zaban. Okertuta ziharo. Ezer ere ez. Harek irabazten zabalakuan, [trensia] merkiaua zalako, baiña bestetikan...

- Galtzen ertetzen zan.

- Materixalak hainbeste ein genduanak, danak okertuta, lanik ein eziñikan-ta... Halaxe.

- Eta Teodosia, zenbat denbora egon ziñan zu lanian hor, Arrietanian?

- Hor?

- Bai, zenbat urterekin hasi ziñan hor, hamabi urterekin?

- Neska gaztia sartu nitzan ni hor, hamabi urtekin edo hola sartu ta...

- Zenbat urte?

- Bai, gero behintzat hemezortzi-edo, hogeitau-edo...

- Hogeitau bar urte bai?

- Lanian hantxe.

- Eta gero jun ziñan Kubara?

- Gero, gero Kubara, gero jun nitzan.

#### 4. 20 urterekin abarketagintza erakustera Kubara

- **Erref:** EGB-011/005
- **Iraupena:** 0:02:02. **Hasi:** 00:09:15. **Bukatu:** 00:11:17
- **Multimedia:** audioa online entzungai

#### Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Baserriari lotutako lanbideak
- Lantegiak » Ekonomia eta industria » Gipuzkoako lantegiak » Debabarreneko lantegiak

#### Laburpena:

20 urterekin Kubara joan zen Azkoitiko Mancisidorren bidez; industria eramatera joan ziren. Bere koinatua mekaniko lanetara joan zen eta 8 hilabete pasa zituzten bertan. Abarketak egiten erakusten zuen.

#### Transkripzioa

- Eta gero jun ziñan Kubara?

- Gero, gero Kubara, gero jun nitzan.

- Ta Kubara zenbat urtekin jun ziñan?

- Kubara jun nitzan esto... azkoittiar bat Mancisidor esaten diuena, beti abadiekin-ta hola, eta horri fraillen batek ein zion hara industria eruatia, han ez zauan hola lanikan-eta. Eta gero bi neska giñan jutekuak eta harek atzera ein zaban, hola pixkat makal samarra zan-ta. Gaixotu ezker ere

haura urrin zauala ta... Ni gogorra nitzan eta, gaiñera, gustatzen zitzatan ikustia gauzak ta nere diruakin ezin jun eta hola okasiua edo baldin banaukan [...]. Eta gero, nere kuñaua ere jun zan, gaiñera, haura mekaniko bezela eta han egon giñan zortzi hillebetian. Sei, sei zan izateko, baiña makiñak Estados Unidos edo handikan etorri bihar zan eta harek tardau zebeñ hille bi etortzen eta harek hille bixak, e...

- Eta ze urtian jun ziñeten hara?

- E?

- Ze urtean izan zan? Noiz jun ziñeten Kubara?

- Ze urte? Hara jun nintzana?

- Bai.

- Horixe ez naiz akordatzen.

- Urtea ez bazera akordatzen, zuk zenbat urte zenezkan?

- Nik neukan orduan... Zenbat eukiko neban? Hogei ez dakit, holakotxen bat.

- Orduan zapaterixan zeunden zu lanian orduantxe, ezta?

- Orduan, "menor de edad" nitzan ondiokan.

- Baiña zapaterian zeunden lanian, alpargatak eitten hamen eta jun ziñan hara?

- Bai ba, baiña bertara hauraxe lana eittera, e!

- Bai, haura erakustera.

- Bai, haura erakustera.

## 5. Kubatik bueltan lan-egoera

• **Erref:** EGB-011/006

• **Iraupena:** 0:01:01. **Hasi:** 00:11:17. **Bukatu:** 00:12:18

### Gaia(k):

• Baserria » Baserriko lanak » Baserriari lotutako lanbideak

### Laburpena:

Kubatik bueltatu zenean, Arrietak porrot egin zuen eta haren ondoko dendan aritu zen lanean bere ahizpa eta koinatuarekin. Kubara koinatuarekin eta azkoitiar batekin joan zen.

## 6. Neskame Madrilera

• **Erref:** EGB-011/009

• **Iraupena:** 0:02:25. **Hasi:** 00:17:09. **Bukatu:** 00:19:34

### Gaia(k):

• Baserria » Baserriko lanak » Baserriari lotutako lanbideak

• Familia eta harremanak » Bikote kontuak » Ligatzea

### Laburpena:

Kubatik bueltan estazioko abarketa lantegian lanean aritu eta gero neskame joan zen Madrilera. Senitartekoak ditu bertan. Han mutil-laguna ezagutu eta Elgoibarko mutil-laguna utzi zuen.

## 7. Sevillako mutil batekin ezkondu eta alaba izan zuen

• **Erref:** EGB-011/012

• **Iraupena:** 0:02:47. **Hasi:** 00:21:48. **Bukatu:** 00:24:35

**Gaia(k):**

- Ekonomia eta industria » Langileen arteko harremana eta langile-mugimenduak

**Laburpena:**

Madrilen zegoela, Sevillako mutil batekin irteten hasi eta berarekin ezkondu zen. Elgoibarrera itzuli eta bertako parrokiaren ezkondu zen 24 urterekin; gero atzera bizitzera Madrilerara bueltatu ziren. Han haurdun geratu zen, baina harremana hautsi eta Elgoibarrera itzuli zen; bertan alaba bat izan zuen.

**8. Umea izan eta gero Manzisidorrean berriz ere alpagatagintzan**

- **Erref:** EGB-011/014
- **Iraupena:** 0:01:00. **Hasi:** 00:29:05. **Bukatu:** 00:30:05

**Gaia(k):**

- Baserria » Baserriko lanak » Baserriari lotutako lanbideak

**Laburpena:**

Umea izan eta gero ere Manzisidorren tailerlean jarraitu zuen lanean.

**9. Eskola publikora eta mojetara joan zen**

- **Erref:** EGB-011/015
- **Iraupena:** 0:03:33. **Hasi:** 00:30:05. **Bukatu:** 00:33:38

**Gaia(k):**

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Maisu-maistrak

**Laburpena:**

Eskolara mojetara eta eskola publikora joan zen. Irakaslearen inguruko kontuak aipatzen ditu. Dirua zela eta, komeriak izaten zituzten eskola ordaintzeko. Eskola publikoa plaza txikian zegoen eta Tolosako maistra zuten. Bera baino txikiagoei erakusten aritzen zen Teodosia.

**10. Eskolan 100 ume eta irakasle bakarra**

- **Erref:** EGB-011/016
- **Iraupena:** 0:02:06. **Hasi:** 00:33:38. **Bukatu:** 00:35:44

**Gaia(k):**

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Maisu-maistrak

**Laburpena:**

Maistra bakarra eta ia 100 ume zeuden eskolan. Maistraren inguruko kontuak eta anekdota bat kontatzen ditu.

**11. Eskolara sartu aurretik enkarguak egin behar**

- **Erref:** EGB-011/017
- **Iraupena:** 0:01:26. **Hasi:** 00:35:44. **Bukatu:** 00:37:10

**Gaia(k):**

- Aisia » Kultura » Irakurtzea
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola

**Laburpena:**

<p>Eskolara goizean 09:00etarako joaten zen, etxerako enkarguak egin eta gero. Eskola ingurua deskribatzen du. Aitari <em>El Pueblo Vasco</em> egunkaria erosten zion eskolara sartu aurretik.</p>

**12. Lagun artean neska eta mutil futbola ikustera**

- **Erref:** EGB-011/018
- **Iraupena:** 0:01:49. **Hasi:** 00:37:10. **Bukatu:** 00:38:59

**Gaia(k):**

- Aisia » Taberna giroa » Elkarte gastronomikoak
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Gaztetako ibilerak

**Laburpena:**

Lagunartean kalean ibiltzen ziren; plazan mutilekin limonada edaten zuten. Elkarte zegoen eta bertan neskak egoten ziren eta mutilek erdia ordaintzen zuten futbola ikusteagatik.

**13. Hondartzara eta mendira lagunekin paseatzera**

- **Erref:** EGB-011/019
- **Iraupena:** 0:01:31. **Hasi:** 00:38:59. **Bukatu:** 00:40:30

**Gaia(k):**

- Aisia » Mendia eta hondartza » Hondartza

**Laburpena:**

Debako hondartzara joaten zen lagunekin trenez. Ez ziren bainatzera joaten, dotore jantzi eta paseatzera baizik. Mendira Mendaroko kobetara joaten ziren. Lagunak auzokoak zituen.

**14. Igandetan arropa dotoreagoak**

- **Erref:** EGB-011/021
- **Iraupena:** 0:03:02. **Hasi:** 00:42:55. **Bukatu:** 00:45:57

**Gaia(k):**

- Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu » Arropa eta oinetakoak

**Laburpena:**

Lanera zihoanean bata janzten zuen eta igandeetarako arropa dotorea erabiltzen zuen. Anekdotak bat kontatzen du. Amonaren janzkera aipatzen du.

**15. Ilea bilduta erabiltzen zen**

- **Erref:** EGB-011/022
- **Iraupena:** 0:00:53. **Hasi:** 00:45:57. **Bukatu:** 00:46:50

**Gaia(k):**

- Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu » Arropa eta oinetakoak
- Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu » Orrazkerak

**Laburpena:**

Orduan ilea bilduta eramaten zuten eta orraztera Eibarrera joaten zen. Ezpainik eta aurpegirik ez zuten makilatzen.

**16. Plazara dantzara eta futbola ikustera lagunekin**

- **Erref:** EGB-011/023
- **Iraupena:** 0:01:39. **Hasi:** 00:46:50. **Bukatu:** 00:48:29

**Gaia(k):**

- Aisia » Kirola » Futbola
- Aisia » Kultura » Musika

**Laburpena:**

Neska-mutilak dantzara plazara joaten ziren, banda egon ohi zen. Futboleko sozio ziren eta neskek ez zuten ordaintzen.

**17. Elgoibarko zineak: Zine Zaharra eta Odeon**

- **Erref:** EGB-011/026
- **Iraupena:** 0:00:53. **Hasi:** 00:51:15. **Bukatu:** 00:52:08

**Gaia(k):**

- Aisia » Kultura » Zinema

**Laburpena:**

Elgoibarren Zine Zaharra eta Odeon antzokia zeuden. Teodosiak ez zuen dirurik izaten zinera sartzeko eta kanpoan zeuden koadroei begira egoten zen.

**18. Anaiak musikariak**

- **Erref:** EGB-011/028
- **Iraupena:** 0:01:55. **Hasi:** 00:52:49. **Bukatu:** 00:54:44

**Gaia(k):**

- Aisia » Kultura » Musika
- Aisia » Kultura » Dantza

**Laburpena:**

Musika eta dantza gustuko bazituen ere ez zen sekula musika ikastera joan. Etxean bi anai musikari zituen, bandan eta txistua jotzen ibiliak.

**19. Irratia entzuten**

- **Erref:** EGB-011/029
- **Iraupena:** 0:01:29. **Hasi:** 00:54:44. **Bukatu:** 00:56:13

**Gaia(k):**

- Kultura » Aisia » Hedabideak » Irratia
- Herria, azpiegitura » Berrikuntzak » Aparatuak, objektuak

**Laburpena:**

<p>Etxean bazuten irratia eta albisteak entzuten zituzten. Izebaren etxean politika gehiago entzuten zen. Anekdotak bat kontatzen du.</p>

**20. Etxetik kanpo erdaraz**

- **Erref:** EGB-011/032
- **Iraupena:** 0:03:32. **Hasi:** 00:59:30. **Bukatu:** 01:03:02

**Gaia(k):**

- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Anekdotak, kontakizunak
- Euskara » Euskararen egoera

**Laburpena:**

Eskolan eta kalean erdaraz egiten zuen gehienbat. Aitak bietara egiten zuen ondo. Gerra garaian, euskara debekatua egon zen. Anekdotak bat kontatzen du bere aitaren inguruan.

**21. Eibarko eta Elgoibarko futbol taldeen arteko lehiak**

- **Erref:** EGB-011/033
- **Iraupena:** 0:02:19. **Hasi:** 01:03:02. **Bukatu:** 01:05:21

**Gaia(k):**

- Aisia » Kirola » Futbola

**Laburpena:**

Futbola gustatzen zitzaien, baina mutilek bakarrik jokatzeko zuten. Igandero joaten ziren futbol partiduak ikustera. Elgoibar eta Eibarren arteko partidetan pike handia egoten zen, jende ugari joaten zen.

**22. Elgoibarko auzoetako jaiak**

- **Erref:** EGB-011/034
- **Iraupena:** 0:03:08. **Hasi:** 01:05:21. **Bukatu:** 01:08:29

**Gaia(k):**

- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Anekdotak, kontakizunak
- Aisia » Jai-giroa » Herriko ospakizunak

**Laburpena:**

Elgoibarko San Bartolomeak zituen Teodosiak gustukoak. Jaietan egon ohi ziren ekintzak aipatzen ditu. Teodosiaren kaleko, Arrosarioko festak handiak izaten ziren. Anekdotak bat aipatzen du. Kaleen artean ika-mika handia izaten zuten.

**23. Eguneroko jatekoa**

- **Erref:** EGB-011/035
- **Iraupena:** 0:00:51. **Hasi:** 01:08:29. **Bukatu:** 01:09:20

**Gaia(k):**

- Ohiturak eta bizimodua » Elikadura » Jatekoa eta edatekoa

**Laburpena:**

Etxean baba gorriak jaten zituzten urdai eta txorizoarekin. Ostegunetan ama azokara joaten zen.

**24. Elgoibarko parrokian ezkondu zen**

- **Erref:** EGB-011/038
- **Iraupena:** 0:05:00. **Hasi:** 01:11:37. **Bukatu:** 01:16:37

**Gaia(k):**

- Familia eta harremanak » Bikote kontuak » Ezkontzak
- Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu » Arropa eta oinetakoak
- Ohiturak eta bizimodua » Erljioa » Elizarekin lotutako pertsonak

**Laburpena:**

<p>Igandero mezara joaten zen goizeko zortzi eta erdietarako. Parrokiara joaten zen; hango apaizak izendatzen ditu. Elgoibarko parrokian ezkondu zen Eibarren erositako jantziarekin eta gizona traje urdinez . Goizeko zazpitan ezkondu zen eta aita-amabitiak joan ziren soilik elizkizunera.</p>

**25. Gerra denboran aitaren jaiotetxean**

- **Erref:** EGB-011/044
- **Iraupena:** 0:01:07. **Hasi:** 01:23:48. **Bukatu:** 01:24:55

**Gaia(k):**

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa

**Laburpena:**

Aita Apraiz baserrikoa zen, San Antolin auzokoa. Gerra-denboran han egon ziren eta gero libre zegoen etxe batera joan ziren hegazkinak zirela eta.

**26. Aita eskopetagintzan eta ama abarketak josten**

- **Erref:** EGB-011/045
- **Iraupena:** 0:01:54. **Hasi:** 01:24:55. **Bukatu:** 01:26:49

**Gaia(k):**

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa

**Laburpena:**

Aitak eskopetak egiten zituen eta amak abarketak josten zituen. Teodosiak ez zuen dirurik irabazten ahizparenean lanean aritu zenean, txartelak ematen zizkieten jana erosteko. Anaiaren inguruko kontuak aipatzen ditu.

**27. Jende gehiena trenez ibili ohi zen**

- **Erref:** EGB-011/047
- **Iraupena:** 0:01:11. **Hasi:** 01:27:26. **Bukatu:** 01:28:37

**Gaia(k):**

- Herria, azpiegitura » Garraioak » Autoak
- Herria, azpiegitura » Garraioak » Trenak

**Laburpena:**

<p>Elgoibarren lehenbiziko kotxea ikusi zueneko; taxien inguruko aipamena egiten du. Jende gehiena trenean ibiltzen zen.</p>

**Ahotsak.eus**-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.

2026-06-06

**CC-by-sa | Ahotsak.eus**

Badihardugu Euskara Elkartea

Markeskua Jauregia, 20600 Eibar

943121775 - ahotsak@ahotsak.com